prentsa oharra
nota de prensa

Iruña, 2020.06.23

## *Low cost* plangintza 2020/21 ikasturterako

Departamentuak mahai sektorialeko sindikatuei aurkeztu die prebentzio eta antolaketa protokolo bat 2020/21 ikasturterako. Aldi berean prentsari ere erakutsi dio, negoziazio itxura egin nahian. Etsipengarria da plana, muzin egiten baitio Carlos Gimeno kontseilariaren hitzek piztutako itxaropenari.

Ikasturtea 1 izeneko egoerarekin has liteke: baliabide urriak baliatuko lirateke bakarrik musukoak, gel hidroalkoholdunak, manparak eta abar erosteko eta seinaleak paratzeko ikasleak bideratzeko asmoz. Ez da aurreikusi inbertsiorik bestelako irakasgunetan, ezta irakasle gehiagoren kontratazioan, ratioak jaisteko eta dentsitate handiko ikastetxeetan ikasleak pilatu ez daitezen. Hori bakarrik posible litzateke 3. egoeran eta ikastetxe guztiak itxi ondoren.

Mahairatu den beste kontzeptu bat *streaming*eko klaseak dira gelan "sartzen" ez diren ikasleentzat edo etxean gelditu behar dutenentzat, egoeraren arabera. Horrelakoetan irakasleek beren klaseen emanaldia edo grabazioa kontrolatu beharko lukete, aurrez aurreko klasea ematen ari den bitartean. Gainera, ez dakigu deus Departamentuaren plataforma telematiko publikoaz, aipatu grabazioak zein  ikasleri zuzentzen zaion, hari ailegatzen zaiola ziurtatzeko, ez beste inori. Datu erauzketaren negozioak bete-betean segituko luke.

Begi-bistan dago ez dela ahalegin zipitzik egin bestelako irakasguneak bilatzeko, ezta baliabide ekonomiko gehiago lortzeko ere, beste planteamendu ekonomiko eta fiskal batetik etor daitezkeenak. Eta horrek guztiak iragartzen du beste murrizketa jarduketa bat hezkuntza publikoan, UPNren azken agintaldian, PSNk lagundurik, gertatu zenaren adinakoa edo handiagoa. Gainera, murrizketa haien arduradun askok Departamentuaren organigraman goi-goian daude, murrizketa batzuek bere horretan jarraitzen duten bitartean. Horregatik, bere burua ezkerrekotzat jo eta itxuraz hezkuntza publikoa defendatzen duten partiduek birplanteatu behar lukete egungo gobernuari ematen dioten babesa.

Azkenik, low cost plangintza horri gehitzen zaizkio hezkuntza ituna ez betetzea eta alarma egoeran hasitako murrizketa berriak. Horregatik, hezkuntzako langileei erne egoteko esaten diegu, haien eskubideen alde eta hezkuntza publikoaren alde borrokatzeko.

## Plan *low cost* para el curso 2020/21

El Departamento ha expuesto a los sindicatos de la mesa sectorial un protocolo de prevención y organización para el curso 2020-2021, al mismo tiempo que lo presentaba en rueda de prensa, en un nuevo paripé de negociación. Este plan es toda una decepción, después de las expectativas suscitadas por diferentes declaraciones del consejero Carlos Gimeno.

En principio, el curso podría iniciarse en una situación denominada 1, en la que los escasos nuevos recursos se gastarían únicamente en la compra de mascarillas, geles hidroalcohólicos, mamparas y señaléctica para dirigir flujos de alumnado. No se ha previsto ninguna inversión en espacios educativos alternativos, ni en la contratación de más profesorado, con el objeto de reducir la ratio y evitar la acumulación de alumnado en centros de alta densidad. Esto último solo sería posible parcialmente en la situación 3 y después de cerrar todos los centros educativos.

Otro concepto que se apunta es el de las clases en *streaming* para el alumnado de secundaria que no "quepa" en el aula o para el que tenga que quedarse en casa dependiendo de la fase. En este sentido, el profesorado debería estar controlando la emisión o grabación de su clase, al mismo tiempo que desarrolla la clase presencial. Además, nada se sabe de la plataforma telemática pública del Departamento, para asegurar que estas grabaciones solo llegan al alumnado al que va dirigido. El negocio de extracción de datos persistiría.

Es evidente que no se ha realizado ningún esfuerzo para buscar espacios alternativos, ni tampoco para obtener recursos económicos provenientes de un nuevo planteamiento económico y fiscal. Esto no hace más que presagiar una nueva ola de recortes en la educación pública, de la misma magnitud o peor que la sufrida en el último mandato de UPN, en colaboración con el PSN. Además, varios de los brazos ejecutores de aquellos recortes, muchos de los cuales todavía no se han revertido, detentan altos cargos en el organigrama del Departamento. Por ello, nos parece urgente que los partidos autodenominados de izquierdas y que afirman defender la educación pública, se replanteen su apoyo al actual gobierno.

Por último, este plan *low cost* se une al incumplimiento del pacto educativo y a los nuevos recortes iniciados en el periodo de alarma. Por todo ello, instamos a las y los trabajadores de la educación a estar alerta para luchar por sus derechos y por la educación pública.